



CAIXABANK-EN ARAUDIAREN BETETZE-POLITIKA KORPORATIBOAREN PRINTZPIO OROKORRAK

2021eko uztaila

AURKIBIDEA

1. Sarrera
 - 1.1 Aurrekariak
 - 1.2 Irismena
 - 1.3 Helburua
2. Ezarpen-arloa
3. Arau-esparrua. Araudi eta estandar aplikagarriak
4. Araudiaren betetze-funtzioaren printzipio orokorrak
 - a. Autonomia
 - b. Independentzia
 - c. Agintea
 - d. Giza baliabideak eta baliabide teknikoak
 - e. Gaitasuna eta ohorea
 - f. Informaziorako sarbidea
 - g. Arriskuan oinarritutako ikuspuntua
 - h. Iraunkortasuna
5. Araudiaren betetze-funtzioaren kudeaketa-esparrua
 - 5.1 Kudeaketa-eredua
 - 5.2 Araudiaren betetze-funtzioaren elementu nagusiak

1. Sarrera

1.1 Aurrekariak

Asko dira erakundeei Araudia betetzeko funtzioa (*aurrerantzean, Araudia betetzea edo Betetzea*) egiten duen funtzio espezifiko bat izatea eskatzen dieten hainbat mailatako lege-xedapenak. Era berean, enpresaren printzipio etikoak bultzatzea, legea errespetatzeko kultura korporatibo bat berrestea eta tarteka politika horietako betebeharrak ez betetzearen arriskuarekin lotutako kontrolen eraginkortasuna ebaluatzea ere eskatzen zaie.

Jokabide-esparru horretan, CaixaBank-en Administrazio-kontseiluak CaixaBank-en Araudia betetzeko politika korporatiboaren printzipio orokor hauek onartzen ditu (*aurrerantzean, "Printzipio orokorrak"*).

1.2 Irismena

Araudia betetzea erakundeko kide bakoitzaren ardura da; ardura hori honela banatzen da Araudia betetzearen funtzioari eta langileei dagokienez:

a) Araudia betetzearen funtzioa

Araudia betetzearen funtzioaren ardura nagusiak hauek dira:

- Araudi-betetzearen politika zuzen eta eraginkor ezartzen dela bermatuko duen Betetze-programa bat definitzea, inplementatzea eta mantentzea.
- Betetze-arriskua etengabe identifikatzea, monitorizatzea eta ebaluatzea.
- Erakundearen Gobernu-organoei eta Goi-zuzendaritzari Betetzeari eta ahulguneak konpontzeko ekintza-planen aspektu nagusien berri ematen zaiela ziurtatzea.
- Goi-zuzendaritzari eta CaixaBank-eko eta bere filialetako gainerako langileei laguntzea eta aholkatzea, Betetze-arriskua egoki kudeatzeko.
- Erakundeko langileei zuzendutako Betetze-arloko trebakuntza-planak bultzatzea, koordinatzea, monitorizatzea eta, hala balegokio, exekutatzea.
- Arautzaile eta gainbegirale nagusiekin etengabe harremanetan egotea dituzten itxaropenak ezagutu eta CaixaBank-en ekimen eta proiektu arautzaile nagusiei buruzko informazioa ematea barne duen komunikazio arin bat mantentzen laguntzeko.
- CaixaBank-en Kode etikoko balioak eta printzipioak zabaltzeko prozesuaren buru izatea, Erantzukizun sozial korporatiboaren ardura duten arloekin batera.
- Arriskuan oinarritutako ikuspegi batekin, urtean zehar Araudi-betetzearen funtzioak egin beharreko jardura nagusien plangintza egitea, baita horien jarraipena egitea ere. Plangintza hori Betetzearen urteko planean azaltzen da.
- Erakunde-barruko arauak betetzeko kultura bultzatzea, erakunde guztian, araudiak, politikak, prozedurak eta jokabide-estandarrak betetzea errazteko gobernu-esparru egoki bat ezartzea eta mantentzea bultzatuz.

b) Langileak

CaixaBank-eko langile guztien betebeharrak nagusia, eguneroko jokabideetan, barruko eta kanpoko araudia, Gobernu-organismoak, Goi-zuzendaritzak eta Araudia betetzearen funtzioak Betetze-arriskuari buruz emandako ildo eta argibideak ezagutzea eta betetzea da.

Era berean, CaixaBank-en Kode etikoko edukiari jarraikiz, langileei jakinarazten zaie araudia edo estandar etikoak nolabait ez direla betetzen jakiten dutenean, haien berri eman, eta beharrezkoa balitz, salatu egin behar dutela Kontsulten eta salaketan kanalaren bidez.

CaixaBank-ek berariaz debekatzen du eta ez du onartuko salaketa egin duten pertsonen aurkako errepresaliarik izaterik, ezta salaketa horien ikerketan parte hartzen duten edo laguntzen duten horien aurkakorik ere; betiere fede onez jardun badu eta salatutako ekintzan parte hartu ez badu. CaixaBank-ek salatzailea babestuta dagoela ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

1.3 Helburua

Araua betetzearen funtzioaren misioa, legeak, arauak, errekerimendu judizialak edo administratiboak, jokabide-kodeak edo estandar etikoak eta praktika onen kodeak ez betetzearen edo gaizki betetzearen ondorioz, bere jokabide-arloan eta legezko/araudizko arriskuei eta jokabide arriskuei buruz (*Betetze-arriskua*), erakundeak jasan ditzakeen zigorren edo galera finantzarioen arriskuak identifikatzea, ebaluatzea, gainbegiratzea eta jakinaraztea da; baita goi-zuzendaritzari eta gobernu-organismoari araudia betetzeari buruz, trebakuntzaren, informazioaren eta sensibilizazioaren bidez, erakunde osoan betetze-kultura bat aholkatzea, informazioa ematea eta laguntzea ere.

Xede horretarako, Araudia betetzearen misioa helburu hauen bidez antolatzen da:

- Erakundeak gauzatutako prozesuetatik eta jardueretatik eratorritako Betetze-arriskua gainbegiratzea.
- Erakundearen jokabidea gidatu behar duten Kode etikoan dauden balore korporatiboak eta printzipioak bultzatzea, indartzea eta sustatzea.
- Erakunde guztiaren kudeaketan integratzea ahalbidetzen duen eta errazten duen indarrean dauden legeak eta araudiak (kanpokoak zein barrukoak) kontrolatzeko eta betetzeko kultura bat bultzatzea.

Printzipio orokor horien edukiak barne ditu:

- Betetze-arriskua kudeatzea zuzentzen duten estrategia edo printzipio orokorrak
- Gobernu-esparrua
- Betetze-arriskuaren kudeaketaren alderdi orokorrak
- Kontrol-esparrua
- Reporting / Informazio-esparrua

2. Ezarpen-arloa

Printzipio orokor hauen izaera korporatiboa da. Ondorioz, definitutako jokabide-printzipioak betetze-arriskua jasan dezaketen jarduerak egiten dituzten CaixaBank Taldeko elkarte guztiei aplikatzen zaizkie. Elkarte horien gobernu-organismoek bidezko erabakiak hartuko dituzte Printzipio orokor hauen xedapenak integratzeko helburuz, eta proportzionaltasun-printzipioari jarraituz, gobernu-esparru hori gobernu-organismoen, batzordeen eta sailen egituraren idiosinkraziari egokituko zaio, baita haien jarduera-printzipioei, metodologiei eta dokumentu honetan azaldutako prozesuei.

Txertatze hori, beste erabaki batzuen artean, filialak berak onartutako printzipio orokor batzuk izan daitezke. Onespena beharrezkoa izango da Printzipio orokor hauetan xedatutakoa beren zehaztasunetara egokitu behar dituzten filialetan, dela gaiarengatik, dela jurisdikzioarengatik, dela filialean duen arriskuaren garrantziagatik. Hipotesi horretan, CaixaBank-en Compliance funtzioak edo dagokion Batzordeak, beti ere ere funtzioek izaera korporatibo bat aitortuta badute, bere izaera korporatiboa dela-eta, printzipio horiek politika korporatiboaren Printzipio orokorrekin lerratuta daudela eta CaixaBank osoan koherenteak direla zainduko dute.

Bestalde, filialaren kontrol- eta kudeaketa-jarduera CaixaBank-etik zuzenean egiten den kasuetan, filialeko arriskuaren materialtasunarengatik, efizientzia-arrazoiengatik edo CaixaBank-ekin azpikontratatu duelako arrisku honen eragiketa-kudeaketa, eragindako filialen gobernu-organismoek Printzipio orokor horiek badirela eta halako filialetan ezartzen dela ezagutuko dute.

Azkenik, Printzipio orokor hauek, korporatiboak izateaz gain, CaixaBank-en banako printzipio gisa hartzen dira, CaixaBank Taldeko matrizea.

3. Arau-esparrua. Araudi eta estandar aplikagarriak

Printzipio hauek indarrean diren araudi aplikagarrietan xedatzen denaren arabera zuzenduko dira, baita etorkizunean hura aldatzen edo ordeztzen duenaren arabera ere. Egiteko unean, Araudia betetzearen funtzioari aplikagarri zaion indarrean den araudia, besteak beste, hau da:

- EEUU - **US Foreign Corrupt Practices Act (FCPA)**, 1977
- “Enterprise Risk Management - Integrated Framework” (**COSO I**, 1992)
- ELGAren eroskeriaren/ustelkeriaren aurkako konbentzioa (1997) **Nazioarteko transakzio ekonomikoetan Atzerriko agente publikoen ustelkeriari aurka egiteko hitzarmena**
- **ELGAren Gobernu korporatiboaren printzipioak** (1999)
- Ustelkeriaren aurkako NBEren konbentzioa (2003).
- Ustelkeriari aurre egiteko **enpresa-printzipioak**. Nazioarteko gardentasuna (2003).
- Australian Standard 3806-2006 **Compliance Programs** (2006)
- “**Compliance and the Compliance function in Banks**” (Banku-gainbegiratzearen batzordea, Basilea, 2005)
- “Enterprise Risk Management - Integrated Framework” (**COSO II**, 2004)
- Zigor-kodearen **erreforma** 5/2010 LO (2010)
- **UK Bribery Act** (2010)
- Guidance to the US FCPA (2012) Baliabideen gisa eta informazio-bilduma
- Barne-gobernuaren **gida** GL 44) EBA
- CNMVren otsailaren 26ko 1/2014 Zirkularra, barne-antolamenduaren eskakizunei eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten entitateen **kontrol-funtzioei** buruzkoa.
- Zigor-kodearen **erreforma** 1/2015 LO (2015)
- **Bankuen gobernu korporatiboaren printzipioak** (Banku-gainbegiratzearen batzordea, Basilea, 2015)
- **ELGAren eta G20ren Gobernu korporatiboaren printzipioak** (2016)
- Estatuko Fiskaltza Orokorraren 1/2016 Zirkularra, **pertsona juridikoaren zigor-erantzukizunari** buruzkoa, 1/2015 LOK egindako Zigor-kodearen erreformaren arabera (2016)
- ISO 37001 araua, **Ustelkeriaren aurkako** kudeaketa-sistemei buruzkoa (2016)
- UNE 19601 araua, **zigor compliance-ren** kudeaketa-sistemei buruzkoa (2017)
- “COSO Enterprise Risk Management - Integrating with Strategy and Performance” gida (**COSO III ERM**, 2017)
- 2018ko ekainaren 30eko EBA gidalerroak **Barne-gobernuari buruz EBA/GL/2017/11** (2017)
- ISO 37301 araua, **compliance-ren** kudeaketa-sistemei buruzkoa (2017)
- **MiFID II-ren Betetze-funtzioari (Compliance) buruzko azken gidalerroak - ESMA35-36-1952.**
- Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteen **berri ematen duten pertsonen babesari** buruzko gidalerroa (2019)
- **Lehiaren defentsari buruzko** Compliance programei buruzko **CNMCren gida.**

Atzerriko jurisdikzioen edo sektoreko araudi osagarriaren mendeko filialen kasuan, filial horiek garatzen dituzten politikek eta prozedurek, bere araudiaz gain, kontuan hartuko dituzte aurrez aipatutako araudian dauden betebeharrak, dagokion jurisdikzioaren edo sektoreko araudiaren berariazko eskakizunekin kontraesankorrak ez badira.

Azkenik, Taldeko sozietate bakoitzean Printzipio orokor horiek ongi inplementatzeko, exekutzeko eta betetzeko beharrezkoak diren arauak, gidak edo prozedurak garatzen dira.

4. Araudia betetzearen funtzioaren printzipio orokorrak

Gobernu-organoak esleitutako misioa gauzatzeko asmoz, Araudia betetzeak printzipio hauen arabera gauzatzen du bere funtzioa:

a) Autonomia

Araudia betetzearen funtzioa funtzio autonomo bat da, eta horrek esan nahi du bere funtzioak egiteko behar adina ekimen izan behar duela beste arlo batetik jarraibide zehatzik jaso edo haiek eskatuta jarduteko beharrik gabe.

Araudia betetzearen funtzioak erabakiak hartzeko autonomia izan behar du, erakundeko beste arlo edo funtzio batek haren iritzia onartu edo berretsi beharrik gabe.

b) Independentzia

Erabakien objektibotasuna bermatu ahal izateko, Araudia betetzeko funtzioak independentzia funtzionalaren printzipioaren arabera jardungo du Betetze-arriskua gainbegiratzen eta monitorizatzen duen arlo edo funtzio haietan.

Era berean, bere independentzia bermatzeko xedez, Betetze-funtzioak ez du helburu komertzialik bete behar, bere jardueraren eta erakundearen erronka korporatibo orokorren mende soilik egongo da.

Era berean, izendapena, jarduera-uztea, ordainsaria ezartzea (finkoa edo aldakorra eta bien arteko proportzioa arrazoizko printzipio bat errespetatuta betiere) eta bere helburuen edo erronken lorpen-mailaren ebaluazioa, dagozkion Gobernu-organoei aplikagarri zaizkien lege-eskakizunak bete baino lehen.

Araudia betetzearen funtzioa gauzatzen duten pertsonak ezin izango dute funtzio hori kontrolatzen duten zerbitzuak eta jarduerak ematen parte hartu, bere funtzioak gauzatzean behar ez den eraginik egon ez dadin.

Araudia betetzearen funtzioa, edonola ere, zuzenean sartu ahal izango da Zuzendaritza- eta Gobernu-organoetan, bere funtzioak eta ardurak garatzeko.

c) Agintea

Betetze-funtzioa erakundearen antolamenduaren hierarkia-maila altuenetan kokatuko da (Goi-zuzendaritza), eta bere jarduera-ildoak eta erabakiak erakundearen beste arlo batzuek bere gain hartzeko aginte izango du.

Betetze-funtzioak noiznahi hasi ahal izango ditu entitatea arriskuan jar dezaketen ez betetzearen benetako arriskuak edo balizko arriskuak dituzten arloei edo prozesuei buruzko ebaluazio- eta/edo egiaztatze-prozesuak eta ikerketak.

d) Giza baliabideak eta baliabide teknikoak

Betetze-funtzioaren misioaren eta erakundearen barruan dituen erantzukizunen garrantzia dela eta, Betetze-funtzioa gauzatzen duten arloek Printzipio orokor hauetan Funtzioari esleitutako jarduerak eta erantzukizunak egiteko behar adina baliabide izan behar dituzte.

Hala, Araudia betetzeak bere funtzioa modu eraginkorrean egin ahal izateko behar adina baliabide materialak, informatikoak eta teknikoak esleitu behar dira, eragiketen izaera, bolumena eta konplexutasuna eta erakundeak bere gain hartutako arriskuen izaera kontuan hartuta.

Xede horretarako, Betetzeko funtzioak bere jarduerak egin ahal izateko aurrekontu bat eduki beharko du, eta erakundeak jasaten duen ez-betetzearen arrisku-mailaren arabera izan beharko du.

e) Gaitasuna eta ohorea

Betetze-funtzioa gauzatzen duten pertsona guztiek bere egitekoak erakunde guztiak bermeekin egin ahal izateko beharrezkoak diren ezagutzak, esperientzia, kualifikazioa eta ohore profesionalaren eskakizunak bete beharko dituzte, Betetze-funtzioaren estaldura zabala une oro bermatu ahal izateko.

Xede horretarako, trebakuntza- eta ziurtapen-programak ezarri beharko dira Betetze-funtzioan sartu eta hura gauzatzeko, baita garapen profesionala egiten uzten duten planak ere.

f) Informaziorako sarbidea

Betetze-funtzioak bere funtzioak egoki garatzeko behar duen informazio eta dokumentazio oro eskuratu ahal izango du; gainera, maila guztiek beharrezko laguntza eman beharko diote erakunde gainbegiratzaleek ezarritako epeetan haien informazio-eskakizunei erantzuteko.

g) Arriskuan oinarritutako ikuspuntua

Bere jarduera gauzatzean, arauak bete behar dituzten arlo guztiak, eta bereziki Betetze-funtzioak, arriskuan oinarritutako fokuratze bat eduki behar dute, eta beraz, prozesu nagusiekin lotutako Betetze-arriskuaren etengabeko balorazio bat egin beharko dute, Funtzioari dagozkion gainbegiratze- eta monitorizazio-jarduerak lehenesteko, baita identifikatutako arriskuen arabera baliabide egokiak esleitzeko.

h) Iraunkortasuna

Indarrean den araudiak agindutako misioa eta zereginak gauzatzeko asmoz, Betetze-funtzioa egon behar du eta entitatearen antolamendu-egituraren zati izan behar du une oro, erakunde hori osatzen duten pertsonak edozein izanik ere.

5. Araudia betetzearen funtzioaren kudeaketa-esparrua

5.1 Kudeaketa-eredua

Betetze-funtzioaren kudeaketa-eredua oinarritzko bi zutaberen gainean eraikitzen da:

- a) Betetze-arriskuen taxonomia
- b) Araua betetzearen funtzioaren eskumenaren esparrua mugatzea kontrol-ingurunean: hiru lerroko defentsaren eredua

5.1.1 Betetze-arriskuen taxonomia

Betetze-arriskuen taxonomia erakundeak jasan ditzakeen Betetze-arriskuen kategorien arabera sailkapen bat da, CaixaBank Taldearen arrisku orokorren katalogotik abiatuta.

Betetze-arriskua hainbat kategoriatan banatzeak errazago muga daitezke Araua betetzearen funtzioaren jokabide-esparrua, eta Betetze-arriskuen etengabeko ebaluazioa egiteko abiapuntua da.

Era berean, urtean zehar Betetze-funtzioan arreta jarri behar den jarduerak identifikatzeko eta lehenesteko (Betetzearen urteko plana), Gap-en zerrenda eguneratzeko (betetzearen ahulguneak eta hutsuneak) eta Betetze-arloko ekimenak eta proiektuak gauzatzeko oinarri gisa balio du.

CaixaBank-en Barne-kontrolaren politikari jarraikiz, Araua betetzeko funtzioa da, Arrisku korporatiboen katalogoan bildutako arriskuen artean, arrisku hauek gainbegiratzeko arduraduna:

- Jokabidea.
- Legezkoa eta arauzkoa.

Arriskuaren Batzorde orokorrak urtean behin berrikusi behar ditu Betetze-arriskuen taxonomia hori osatzen duten azpikategoriak.

5.1.2. Araua betetzearen funtzioaren eskumenaren esparrua mugatzea kontrol-ingurunean: hiru lerroko defentsaren eredua

Korporazio-mailako arriskuaren kudeaketaren eta CaixaBank-en Gobernu- eta Barne-kontrolako politiken eredu orokor gisa, Betetze-funtzioak arrisku korporatiboen taxonomian jada identifikatutako Betetze-arriskua gainbegiratzeko eta kudeatzeko du, defentsako hiru lerroen egiturari jarraikiz, bakoitzaren funtzioak eta erantzukizunak mugatzen dituelako.

Betetze-funtzioak defentsaren bigarren lerroko gainbegiratze-funtzioa gauzatzen du, eta Barne-kontroleko politikari jarraikiz, Betetze-arriskua identifikatu, neurtu, definitu eta haren nahiaren jarraipena egiten da, eta defentsaren lehen lerroko politikak eta prozedurak aplikatzeko azterketa independentearen arduraduna da. Betetze-arriskuak negozio-unitateetatik aske jarduten du, Betetze-arriskua kudeatzeko eta kontrolatzeko politika badaudela ziurtatuz, aplikatzen direla monitorizatuz, kontrol-ingurunea ebaluatuz eta arrisku material guztiak salatuz.

5.2 Araudiaren betetze-funtzioaren elementu nagusiak

Araua betetzearen funtzioak funtsezko elementu hauek behar ditu Betetze-arriskuaren estaldura egokia dela ziurtatzeko:

- Betetze-programa
- Betetzearen urteko plana
- GAP-en prozesua

5.2.1 Betetze-programa

Betetze-programa, oro har nazioartean onartutako metodologia bati jarraikiz, Betetze-funtzioaren jardura nagusiak arrazionalizatzen eta sistematizatzen dituzten prozesuen eta jardueren multzoa da.

Betetze-programa aplikatzea funtsezko jardura multzo bat exekutatzean oinarrituta dago, besteak beste:

5.2.1.1 Araudia betetzearen politikak

CaixaBank-en Betetze-programaren funtsezko elementu bat da Betetze-arriskuari dagokionez, erakundeak jarraitu beharreko jarduteko eskakizunak eta irizpideak argi zehazten dituen Araua betetzeko arloan Politikak sortzea edo mantentzea da.

5.2.1.2. Araudien eta erregulazioen aldaketak identifikatzea eta inplementatzea

Betetze-arriskuaren arloan entitatean eragina duten araudien eta erregulazioen berrikuntza eta aldaketa nagusiak identifikatzen uzten duen araudia inplementatzeko protokolo bat egitean, behar bezala ezartzean eta haren jarraipena egitean datza, baita entitatearen prozesuetan eta jardueretan izan dezakeen inpaktua aztertzea ere.

5.2.1.3 Arriskuen eta adierazleen mapa

CaixaBank-en jardueran eragina duten funtsezko araudien inbentario bat sortzea eta mantentzea da, Betetze-arriskuen taxonomiari lotuta, baita arrisku horiek monitorizatzea, hautematea eta arintzea ahalbidetzen duten adierazleak identifikatzea, ezartzea eta jarraipena egitea.

5.2.1.4 Aholkularitza

Aurrez azaldu den moduan, Betetze-funtzioaren funtsezko lana Gobernu-organoari, Goi-zuzendaritzari eta gainerako erakundeari Betetzearen misioarekin lotutako alderdi garrantzitsu guztiei buruz aholku ematea da. Funtzio hori gauzatzeko, Betetze-funtzioak espezializatutako beste arlo batzuen babesa izan beharko du, gaiaren arabera.

5.2.1.5 Betetze-arriskuaren aldian behingo ebaluazioa

Erakundearen Betetze-programako funtsezko elementuetako bat Betetze-arriskuaren aldian behingo ebaluazio bat egitea da, Betetze-funtzioak garatzeko jarduerak lehenesteko tresna gisa balio duena, baita arrisku horien garrantzia zehaztu eta baliabideak esleitzeko ere.

Betetze-arriskuaren ebaluazioan kontuan izan beharko dira jarduerak berak duen arriskua, kontrol-ingurunearen gainbegiratzearen emaitzarekin batera, baita barneko edo kanpoko auditoretzen eta gainbegiratze-erakundeen ondorio nagusiak eta Bezeroaren arreta-zerbitzuaren jardura edo xede horretarako gaitu den eta haren kudeaketa Betetze-funtzioari esleitu zaion Kanalean aurkeztutako kontsultak edo salaketak.

5.2.1.6 Monitorizazioa eta azterketa

Betetze-funtzioak monitorizatzeko eta aztertzeko teknikak erabiltzen ditu, Betetze-arriskuarekin lotutako kontrol-ingurunea baloratzeko, arriskuan oinarritutako ikuspuntu batetik begiratuta.

Monitorizazioak tarteka jardueren jarraipena eta berrikustea ekartzen du arrisku-adierazleetan edo barne-erabakietan oinarrituta (KRIak), arauak ez betetzetik eratorritako desbideratzeak edo ekintza okerrak goiz hautemateko.

Azterketa entitatearen ohiko prozesuetan Betetze-arriskuarekin lotutako araudia betetzen dela balioztatzean datza egiaztatze-teknika independenteen (laginketa, prozesuak berrikustea) edo beste froga mota batzuen bidez.

5.2.1.7 Trebakuntza eta sentsibilizazioa

Egokitutako misioa betetzeko xedez, Betetze-funtzioak langile guztiei zuzendutako trebakuntza-, komunikazio- eta sentsibilizazio-programak etengabe garatzen ditu, betetze-kultura bat bultzatu eta Betetzearen betebeharrak eta erantzukizunak ezagutzeko. Ekintza horiek Giza baliabideekin lankidetzan estuan egindako Urteko trebakuntza-planean bilduko dira.

5.2.1.8 Komunikatzea eta informatzea (Reporting)

Araua betetzearen funtzioak Betetze-arriskuarekin lotutako kontrol-ahulgune nabarmenak entitatearen Gobernu-organoei, goiz eta eraginkor, aurkeztu eta salatzen diren gobernu-esparru egoki bat ahalbidetu behar du.

5.2.2 Betetzearen urteko plana

Betetzearen urteko planak erreferentzia egiten dion aldian (urte naturala) Araudia betetzearen funtzioak egin beharreko jardueren zerrenda dauka, hura gauzatzeko plangintza batekin batera, eta guztia arriskua jasan dezaketen jarduerak aldia behin berrikusi, baloratu eta komunikatuko direla bermatzeko xedez.

Definitu eta lehenesteko proportzionaltasun-printzipioak eta arriskuan oinarritutako ikuspegi-printzipioak aplikatzen dira, arriskuen ebaluazioko emaitzen, aurrez hautemandako arriskuen eta gainbegiratze-ekintzen aurreikuspenen arabera, urtean egingo diren jarduerak eraiki eta horien plangintza egiten da.

Tarteka, Betetzearen urteko planaren jarraipena egiten da Zuzendaritza-gobernuei eta Gobernu-organoei Planaren ondorio nagusien berri, hasierako plangintzarekin alderatuta izan den gauzatze-mailaren berri eta sortu diren aldaera nagusien berri emateko.

5.2.3 GAP-en prozesua

GAPen prozesua Araudia betetzearen funtzioak duen funtsezko elementua da Betetze-arriskuen defentsaren bigarren lerroko agindua betetzeko eta Goi-zuzendaritzari jakinarazteko.

Betetzearen GAPak Betetze-arriskuarekin lotutako kontrol-ingurunean identifikatutako ahulguneak dira, eta ondorio hauek dituztenak:

- Araudia betetzearen funtzioak kudeatutako arriskuei lotuta indarrean den legedia edo araudia ez betetzea.
- Erakundeak eta/edo langileek *Kode etikorako eta garapen-araudirako* desegokiak diren edo kontrakoak diren negozio-ohiturak

GAPak Betetze-programa osatzen duten funtsezko jarduerak aplikatzean sor litezke, eta normalean Betetzearen urteko planean islatu ohi dira, baita kontrol-ingurunean hutsuneak aurkitzen dituzten Barneko eta Kanpoko gainbegiratzailleek eta auditoreek egindako ikuskatzeak ere.